

Online Prestakuntza Unitatearen prestakuntza plana

ALTERNATIBA DIGITALAK KONTATZEN

Sare sozialak aliatu gisa, gogoeta eta sentsibilizazio kanpainenetan.

Kasu hauetan:

***Palestina:** ingurumen arazoa eta emakume errefuxiatuen eskubideak (UNRWA Euskadi + Pikara Magazine)

***Afrika:** Osasunerako giza eskubidea defendatzea eta bultzatzea (Anesvad+Moviltik)

Prestakuntza proposamen bat UPV/EHUko ikasleentzat

- Online prestakuntzaren iraupena: 2021eko urriaren 14tik azaroaren 9ra
- Dedikazioa: 25 ordu (hautazko kreditu batez baliozkotu daitezkeenak UPV/EHUko Graduako ikasketetan)
- Tailerraren hizkuntza: gaztelania eta euskara
- Irakasleen taldea: UNRWA Euskadi: Macarena Arrieta Manterola + Pikara Magazine; Moviltik: Maria Arrieta Anesvad; Jessica Dominguez
- Kolaboratzailea: UPV/EHUko Iraunkortasuna eta Gizarte Konpromisoko Zuzendaritza

1. Aurkezpena

Formatu eta tresna digitalek ikus-entzunezkoa ahalduntze eta mobilizazio sozialerako erabiltzeko eskaintzen dituzten aukerak ezagutzea gustatuko litzaizuke?

Justizia, aldaketa, dimentsio global, ekintza baketsu eta itxaropen esparruak biltzen dituzten ikus-entzunezko praktikak izugarri eraginkorrak dira, sentsibilitate etiko bat aktibatzen duten neurrian, eta, hortaz, indarkeriarik gabeko ahalduntze bat errazten dute, bake kulturaren oinarrietatik, gizartea eraldatzeko ekintzak egiteko

“Alternatiba digitalak kontatzen. Sare sozialak aliatu gisa gogoeta eta sentsibilizazio kanpainetan” tailerrak ingurumenaren eta giza eskubideen arazoa lantzea proposatzen digu, Palestinako emakume errefuxiatuen kasuan oinarrituta, eta, era berean, zuek aktibatzea ere nahi du, osasunerako giza eskubidea ikus-entzunezkoen bidez defendatu eta bultzatzea, aldaketa soziala ahalbidetuko duen metodologia aktibo eta kooperatibo baten bidez. Modu espezifikoan, produkzio tresnen eta tekniken ezagutza eta erabilera landuko da, ikus-entzunezko piezak eta mikro-formatuak egiteko, gizartea aldatu, politikan eragin, eta mobilizatu ahal izateko, generoko eta sekzioarteko ikuspegi batetik.

“Alternatibak kontatzen” ikastaroa **Moviltik Elkarteak** (<http://www.moviltik.org/>) eta **UNRWA Euskadik** Palestinako errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentzia (<https://unrwa.es/>) bultzatutako prestakuntza proposamen bat da, UPV/EHUren Garapenerako Lankidetzaren Bulegoaren (<https://www.ehu.es/es/web/oficop>) lankidetzaz.

Moviltik

Moviltik (Aldaketarako mugikorrek) Kultura Berrikuntza Elkartearen helburua gizarte komunikazioko partaidetza proiektuak diseinatzea eta abiaraztea da, alfabetatze mediatiko eta digitaleko prozesuen bidez.

Pertsonen eta kolektiboen laguntzen die, narratiba digitalak batera sortzeko proiektuak gara ditzaten, gailu eta aplikazio mugikorrek erabilia, sortzeko tresna gisa, bai eta plataforma digitalak ere, komunikazio eta difusio euskarri gisa.

Metodologia berritzaile eta parte hartzaile bat erabiltzen du, gizartea sentsibilizatzeko eta eraldatzeko prozesuak bideratzeko, balio, identitate eta errealitate desberdinak dituzten pertsonen arteko elkarketan bidez.

UNRWA Euskadi

Palestinako errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentzia (UNRWA) 1949an sortu zen, Nazio Batuen Batzar Nagusiaren agindupean, arabiar-israeldarraren arteko lehen gerraren biktima izan ziren 720.000 palestinar baino gehiagori laguntza emateko. Jordanian, Libanon, Sirian, Zisjordanian eta Gazako zerrendan dauden Palestinako 5,5 milioi errefuxiatu baino gehiagori garapen programak eta laguntza humanitaria eskaintzen dizkie hainbat arlotan emandako askotariko zerbitzuen bidez: hezkuntza, osasuna, gizartez zerbitzuak, mikro-finantzaketa, babeslekua 58 kanpalekutan, giza

eskubideen babesa, eta larrialdiko erantzuna. **UNRWA Euskadi** 2006an sortu zen, oinarrizko bi helburu hauekin: euskal gizarteari Palestinako 5 milioi errefuxiatu baino gehiagoren egoeraren berri ematea, eta UNRWAk eginiko lan humanitarioa eta babes lana zabaltzea. Arlo hauek lantzen ditu: garapena, larrialdi eta ekintza humanitarioa, eta gizartearen eraldatzeko eta sentsibilizatzeko hezkuntza.

UPV/EHUko Garapenerako Lankidetzaren Bulegoa Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzari atxikita dago, eta UPV/EHUko Garapenerako Unibertsitate Lankidetzaren sustatzeko sortutako zerbitzu bat da, non lankidetzaren ulertzen baita unibertsitateko kide guztiek lankidetzaren diharduten gizartearen ahalmenak indartzearen begira eginiko ahalegin gisa. Bulego horrek unibertsitateko kolektiboaren sektoreetan garapenerako lankidetzaren arloan egiten diren ahaleginak koordinatzen, babesten eta bideratzen ditu.

Tailerra eGelapi plataforma birtualean garatuko da (<https://egelapi.ehu.eus/>) eta, garatzeko elementu hauek izango ditu: irakurketak, bideoak, webgune interesgarrietarako estekak, eta gogoeta jarduerak, aztertu beharreko gaiari lotutako pertsonekin egindako bideo-konferentzien (zuzenean, online) eta hitzaldien bidez.

Irakaskuntza plan hau atal hauetan egituratzen da:

1. Aurkezpena 2. or.
2. Gaitasunak 3. or.
3. Helburuak 3. or.
4. Edukiak 4. or.
5. Laneko metodologia 5. or.
6. Laneko plana 6. or.
7. Ebaluazioa eta ziurtapena 7. or.
8. Egutegia 8. or.
9. Erreferentziako bibliografia 9. or.

Tailer hau sare sozialen aktibismoan eta garapenerako lankidetzaren lanean hasi nahi duten UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzietako eta Osasun Zientzietako ikasleei zuzenduta dago. Halere, ongi-etorria izango dira ere arlo horretan interesa duten beste gradu edo graduonduetako ikasleak ere.

2. Gaitasunak

Tailerra amaitzean, parte hartzaileek gaitasun hauek eskuratzea espero da:

1. Gizarte errealitateari eta garapen prozesuei buruzko ikuspegi kritiko bat izatea, bai maila lokalean bai nazioartean.
2. Jarrera solidarioa eta konpromisoa erakustea, ongizate kolektiborako herritarren bizi baldintzak eraldatzeari begira.
3. Irudimena malgutasunez, originaltasunez eta bizkortasunez aplikatzea, ikus-entzunezko proposamen berritzaileak sortzeko.
4. Baliabideak eskuratzea eta gaitasunak indartzea komunikazio piezak ekoizteko, herritarrak gatazken eta krisi humanitarioen inguruan informatzeko eta sentsibilizatzeko, genero eta giza baliabideen ikuspegitik eta estereotiporik gabe.

3. Helburuak

Tailerra diseinatuta dago, parte hartzaileek ikaskuntza helburu hauek lor ditzaten:

1. Palestinako egoera humanitaria ezagutzea, Palestinako emakume errefuxiatuen ikuspegitik.
2. Osasunerako eskubideari buruz hausnartzea, Afrika-Euskadi ikuspegi lokal-global batetik.
3. Palestinako emakume errefuxiatuen eskubideen urraketari eta ingurumen arazoari buruzko narratiba alternatiboak sortzea, generoan eta giza baliabideetan oinarritutako ikuspegi batetik.
4. Ikus-entzunezko edukiak eta narratiba digitalak sortzea, osasunerako eskubideari eta, oro har, giza eskubideei buruzko kontzientziazioa areagotzeko.

4. Edukiak

Tailerrak 3 modulu tematiko ditu. Hasteko, sarrerako 0 modulua dago; bertan, tailerraren helburua, edukia, programazioa, eta ebaluazio metodologia aurkezten dira, irasleen taldearekin batera.

1. modulua tailerraren bi ardatz tematikoen testuinguruari, ezagutzari eta hausnarketari buruzkoa da: Palestinako lurralde okupatuaren egoera humanitaria, ingurumen azaroa eta Palestinako emakume errefuxiatuen eskubideen urraketa, eta osasunerako eskubidea, Afrikaren eta Euskadiren arteko ikuspegi lokal-global batetik.

2. moduluan, narratiba digitalen sorkuntza lantzen da, nola teoriaren hala praktikaren ikuspegitik. Pikara Magazineko kazetari baten eskutik, ikuspegi kritiko feministaren garrantziaz arituko gara, hedabide konbentzionaletatik iristen zaizkigun albisteak nola irakurri eta ulertu behar diren jakiteko. Irakurketa praktikoa bat eskaintzeko, arabiar-Israeldar gatazken berri emango da RUTA M argitalpenak eskaintutako ikaskuntzen bidez.

Gainera, Moviltik elkarteak osasunaren eskubideari buruzko bost mikro narratiba sortzen lagunduko du, sentsibilizazio kanpainetan erabili ahal izango direnak zenbait plataformatan, Instagram eta TikTok batez ere. Inspirazio gisa, Moviltik-en ikerketaren eta esperientziaren emaitza gisa sortutako "Curaduría de tiktoks con fines de sensibilización" erakutsiko zaie parte hartzaileei. Ondoren, parte hartzaileek astebete izango dute beren sorkuntzak lantzeko, eta, denbora horretan, egokitzen jotzen dituzten kontsultak egin ahal izango dizkiete irakasleei.

Tailerraren amaieran, 3. moduluan, parte hartzaileek sortutako ekoizpenak sozializatuko dira.

Jarraian, modulu bakoitzaren edukiak eta gaiak lantzeko saioetako datak zehazten dira.

1. taula: Tailerraren edukiak

Edukiak	Iraupena	Modalitatea
0 modulu. Sarrera		
<ul style="list-style-type: none"> Sarrera orokorra: prestakuntza programa, edukiak, metodologiak, eta helburu orokorrak eta espezifikoak. Hizkuntza: euskara eta gaztelania 	2 h 1 ordu zuzeneko saioan + 1 ordu lan pertsonala	Online asinkronoa
1. modulu. Testuinguruan jartzea		
<ul style="list-style-type: none"> 1.1 Palestinako egoera humanitario testuinguruan kokatzea, Palestinako emakume errefuxiatuen ikuspegitik (UNRWA). Hizkuntza: euskara (euskarra gaztelaniaz) 	4 h 2 ordu zuzeneko saioan + 2 ordu lan pertsonalean	Online zuzenean - 1. webminarra Urriaren 19a 15:30-17:30
<ul style="list-style-type: none"> 1.2 Osasunerako eskubidea. Afrika-Euskadi ikuspegi lokal-globala (Anesvad+Moviltik) Hizkuntza: gaztelania 	4 h 2 ordu zuzeneko saioan + 2 ikastordu	Online zuzenean - 2. webminarra Urriaren 21a 15:30-17:30
2. Modulu: Narratiba berriak. Teoria eta baterako sorkuntza		
<ul style="list-style-type: none"> 2.1 Estereotipoak apurtzea genero ikuspegitik eta giza eskubideetan oinarrituta (EGyBDH), komunikatzeko (Pikara Magazine). Hizkuntza: gaztelania 	4 h 2 ordu zuzeneko saioan + 2 ordu lan pertsonalean	Online zuzenean - 3. webminarra Urriaren 26a 15:30-17:30
<ul style="list-style-type: none"> 2.2 Narratiba digitalak sortzeko gakoak (Moviltik). Hizkuntza: gaztelania 2.3 Podcast ideiaren garapena 	4 h 2 ordu zuzeneko	Online zuzenean - 4. webminarra

2.4 Ikus-entzunezko mikronarratiba bat garatzea Hizkuntza: gaztelania	saioan + 2 ordu lan pertsonalean	Urriaren 28a 15:30-17:30
Narratiben sorrera Hizkuntza: euskara eta gaztelania	5 orduko sorkuntza lana	Online asinkronoa
3. modulua Produktuak sozializatzea eta amaiera Hizkuntza: euskara eta gaztelania	2 h	Online zuzenean - 5. webminarra Azaroaren 9a 15:30-17:30

5. Laneko metodologia

Irakasle taldeak (UNRWA+Moviltik) espero du "Alternatiba digitalak kontatzen" tailerrean parte hartzen duten pertsonen gogotsu ekitea tailerrean zehar planteatutako jardueri, eta, bereziki, eskaintako edukiei eta azaldutako esperientziei buruzko hausnarketa bultzatzeko diseinatu diren jardueri.

Hasteko, online formatuko aurkezpen asinkrono bat egingo da, bi erakundeek prestatutako materialekin. Bertan, tailerraren ezaugarriak eta hura egiteko metodologia azalduko dira, bai eta laneko plana eta ebaluazioa ere.

Sarrera horren ondoren, parte hartzaileak lehen modulu tematikoa lantzen hasiko dira; bertan, ezagutzera emango dira bai Palestinako emakume errefuxiatuen egoera, bai osasunerako eskubidea Saharaz Hegoaldeko Afrikan eta Euskadin, eta gai horiei buruz hausnartuko da. UNRWA Euskadiren eta Moviltik-en hezkuntza teknikekin egindako bi webminarren bidez, parte hartzaileek zuzenean aritzeko aukera izango dute, planteatutako gaien buruzko zalantzak, jakin-minak eta kontsultak partekatuz. Material osagarriak ere emango dira, interesdunek gaien sakontzeko aukera izan dezaten.

Testuinguruetan sakondu ondoren, bigarren modulu tematikoan Pikara Magazineko, Anesvadeko eta Moviltikeko komunikazio adituek modu praktikoan azalduko dute zer alternatiba dauden narratiba eraldatzaileak sortzeko, ikuspegi feminista batez eta giza eskubideak oinarri hartuta. Bi webinar horietan, parte hartzaileek zuzenean entzun ahal izango dituzte profesionalen esperientziak, eta horrela, komunikatzeko forma berriak ezagutuko dituzte.

3. moduluan taldeko edo banakako lanak egingo dira. Egun horietan parte hartzaileek tailerra osatzeko beharrezkoak diren bi produktu sortuko dituzte: Palestinako emakumei buruzko podcast bat, eta ikus-entzunezko mikronarratiba bat, osasunerako eskubidea ardatz hartuta.

eGelapi lan ingurunean, modulu tematikoak garatzeko elementu hauek izango dira: unitate didaktikoak, landutako edukiei buruzko irakurketak, forak, ikus-entzunezko

materiala eta intereseko webguneetarako estekak.

Tailerrean eskainitako edukiei buruz gogoeta egiteko jarrera sustatzeko, modulua parte hartzaileek egin beharko dituzten lan bat edo batzuekin amaituko da (testak, jarduerak eta/edo eztabaida foroak). Parte hartzaileen ikaskuntza errazte aldera, irakasleek foroetan partaidetza dinamizatu eta horren jarraipena egingo dute, eta lanen gaineko feedbacka emango dute.

Tailer hau ematen duten bi erakundeek metodologia globalari buruzko ikuspegia partekatzen dute; hala, haren oinarrian daude parte hartzea, enpatia indartzea eta tresna teknologikoak erabiltzea, hainbat gizarte gairi buruzko sentsibilizazio eta hausnarketa kanpainen. Ostera, planteatutako emaitzak lortzeko, erakunde bakoitzak metodologia zehatz bat garatu behar da. Jarraian bi metodologiak zehazten ditugu:

Moviltik

Moviltik-ek "Nik Mashup" izeneko garapen metodologia propioa erabiltzen du bere proiektuetan. Metodologia oinarritzen, alde batetik, elkarrizketan eta hausnarketan, eta bestetik, komunikazio digitalean eta ikus-entzunezko komunikazio horizontalean; hala, ekintza komunitariora eta gizartea sentsibilizatzeko eta eraldatzeko prozesuetara bideratuta dago, identitate eta errealitate desberdinak dituzten pertsonen arteko topaketaren bidez.

"Nik Mashup" metodologiak begirada aldatzea proposatzen du, eta eta modu berrietara egokitzen da arazoei eta gatazkei ekiteko, horiek komunikatzeko, kontakizunak eraikitzeke eta horiek herritarrekin mezu partekatuen bidez kontatzeko. Ikuspegi pedagogiko bat du, eta eraldaketa pertsonala eta soziala bultzatzen du, gogoeta, elkarrizketa eta desberdinen arteko topaketaren bidez.

"Nik Mashup" metodologiaren bidez, edozein gai edo arazo lantzen da, protagonismo guztia herritarrei emanez; hots, tailerretan parte hartzen duten pertsonen, horiek baitira elkarrizketan ari direnak eta mezuak eraikitzen eta zabaltzen dituztenak.

Tailerretan, informazioaren transmisioa eta bizipen pertsonalak uztartzen dira, landu beharreko gaiekiko jarrera eraginkor bat sor dadin. Espazio horietan, beraz, metodologia sozio-afektiboa erabiliko da. Horren abiapuntuan enpatiaren lanketa, elkarkidetasun sentimendua eta beste pertsonarekiko korrespondentzia daude, eta norberarenganako segurtasuna eta konfiantza garatzea ahalbidetzen du, baita hitzezko eta ez-hitzezko komunikazio gaitasunak ere.

Horrez gain, tailer horietan *eginez ikasten* edo Learning by doing metodologiak bultzatuko dira, eta jolasean oinarritutako ikaskuntza edo Game-Based Learning-a (GBL).

Tailerren diseinu metodologikorako, María Acasok eta Clara Megíasek planteatutako rEDUvolution-aren ildoetan inspiratu gara. Egile horiek proposatzen dute beharrezkoa dela iraultza bat egitea hezkuntza gertatu behar den lekuetan.¹

¹ https://aprendizajesparalelos.files.wordpress.com/2016/09/converted_file_23f511c5_converted.pdf

UNRWA Euskadi

UNRWA Euskadik testuinguru humanitarioari eta gatazka inguruneei buruzko informazioa genero ikuspegitik tratatzearen alde egiten du, eta horrela ekarpen bat egin nahi du estereotipoak desmuntatzen, isildutako historiak ikustarazten eta herritarrei emakumeen gaineko ikuspegi emantzipatzaile eta ez-estereotipatua ematen, arreta berezia jarrita Palestinako emakume errefuxiatuengan.

Proposamenak unibertsitateko ikasleek baliabide berritzaileak (podcast eta ikus-entzunezko piezak) sortzeko aukera jasotzen du, eta horrela, ikasleek, aldi berean, gizartea sentsibilizatuko dute sorkuntza horien bidez. Learning by doing edo *eginez ikasteko* metodologiaren ezaugarri horiek direla eta, parte hartzaileak proiektuaren protagonistak izango dira, prozesu horren bidez haien enpatia maila areagotu nahi delako Palestinako emakume errefuxiatuen egoeraren aurrean, eta kontzientzia kritiko bat ere sortu nahi delako proiektuaren gaiaren inguruan.

Ikuspegi kritiko feminista baten garrantziari buruzko nozio bat helaraziko zaie ikasleei, komunikabide konbentzionalen bidez egunero iristen zaizkigun albisteak nola irakurri eta ulertu behar diren jakiteko.

Irakurketa praktikoa bat eskaintzeko, palestinarren eta israeldarren arteko gatazkaren estaldura landuko da, Pikara Magazineren lankidetzaz egindako RUTA M argitalpenaren ikaskuntzen bidez (<https://unrwa.es/wp-content/uploads/2017/10/RutaZM.pdf>).

6. Laneko plana

Laneko plana, sarrerako moduluaz gainera, edukien zerrenda egituratzen duten hiru moduluen inguruan eratzen da.

Modulu bakoitzaren laneko planak honako hauek biltzen ditu: webminarretan parte-hartzea, oinarritzko dokumentuak irakurtzea, bideoak ikustea edo gomendatutako webguneetan nabigatzea, eta amaierako bi lan egitea.

Lan horiek dira, hain zuzen, podcast bat eta ikus-entzunezko mikronarratiba bat egitea.

- **Podcasta.** Ikuspegi feminista batetik eta giza eskubideetan oinarrituta, ikasleek podcastaren metodologia berritzailea erabiliko dute, Palestinako lurralde okupatuan bizi den egoerari buruzko edukiak sortzeko eta zabaltzeko, euskal herritarrak arazo horren gainean sentsibilizatzeari eta kontzientziazteari begira.

- **Ikus-entzunezko mikronarratiba** digitala: ikasleei ikus-entzunezko narratiba laburrak sortzea proposatzen zaie, osasunerako eskubidearen gaia ardatz hartuta, sentsibilizazio eta gogoeta tresna moduan baliagarriak izan daitezzen sare sozialetan kanpainak egiteko, hala nola Facebook, Instagram, TikTok...

7. Ebaluazioa

Tailerra gainditzeko eta dagokion akreditazioa jasotzeko, beharrezkoa izango da emandako materialak bistaratzea eta aztertzea, konektatzea, zuzeneko online saioetan (webminarretan) aktiboki parte hartzea, testei erantzutea, modulu bakoitzean planteatzen diren hausnarketa foroetan ekarpenak egitea eta azken bi lanak entregatzea.

Tailerra gainditzeko, nahitaezkoa izango da zuzeneko online saioetara joatea (webminarrak), modulu bakoitzeko testak betetzea eta azken lanak entregatzea (podcast bat + ikus-entzunezko mikronarratiba bat egitea). Testa eta amaierako lanak amaierako kalifikazioaren % 20 eta % 80 izango dira, hurrenez hurren. Bi lanen kasuan, emaitzetako bakoitzari amaierako kalifikazioaren % 40 dagokio.

Bi lanak entregatzen ez dituzten ikasleei EZ GAI kalifikazioa jarriko zaie. Bi lanetako batean 3/10etik gorako kalifikazioa lortzen ez duten ikasleei EZ GAI kalifikazioa jarriko zaie.

2. taula: egin beharreko lanak

Egin beharreko lanak	Amaierako kalifikazioaren %
Prestakuntza moduluen testak entregatzea	20
Podcasta entregatzea (UNRWA)	40
Ikus-entzunezko mikronarratiba bat entregatzea (Moviltik)	40

Tailerra gainditzen duten ikasleek hautazko ECTS kreditu bat baliozkotzeko eskatu ahal izango dute. Akademia Antolakuntzako errektoreordearen 2012ko maiatzaren 21eko (EHAA, 119. zk., 2012ko ekainaren 19a) Erabakiaren bidez argitara emandako graduako ikasketetan kredituak transferitzeari eta onartzeari buruzko Arautegiaren 11.4 a) artikulua araberak, HAUTAZKO KREDITUAK amortizatu daitezke, unibertsitateko errektoreordetzek antolatutako prestakuntzako kultura jarduerak (ikastaroak, mintegiak, biltzarra, etab.) egiteagatik. Jarduera horietarako honako baliokidetasun hau ezartzen da: 1 kreditu 25 orduko. Horrela, UPV/EHUko ikasleek, horretarako ezarritako epeetan, tailerra gainditu ondoren igorritako ziurtagiria aurkeztuko dute matrikulatuta dauden ikastegiko idazkaritzan, eta, dagozkion izapideak egin eta prezio publikoak ordaindu ondoren, kredituak beren espedientei gehituko zaizkie.

8. Egutegia

3. taula: Jardueren egutegia

Jarduera	Ordutegia	Hasierako data	Amaierako data
0 modulua. Sarrera	15:30 – 16:30	21/10/14	21/10/14
1. modulua. Testuingurua		21/10/19	21/10/21
1.1 modulua. Palestinako egoera humanitarioa testuinguruan jartzea	15:30-17:30	21/10/19	21/10/19
1.2 modulua. Osasunerako eskubidea testuinguruan jartzea	15:30-17:30	21/10/21	21/10/21
2. Modulua: Narratiba berriak. Teoria eta baterako sorkuntza	15:30-17:30	21/10/26	21/10/28
2.1 Estereotipoak apurtzea genero ikuspegitik eta giza eskubideetan oinarrituta (EGyBDH), komunikatzeko (Pikara Magazine)	15:30-17:30	21/10/26	21/10/26
2.2 Osasunerako eskubidea. Afrika- Euskadi ikuspegi lokal-globala (Anesvad+Moviltik) 2.3 Podcast ideiaren garapena 2.4 Ikus-entzuneke mikronarratiba bat garatzea	15:30-17:30	21/10/28	21/10/28
3. modulua Podcasta+ikus- entzunezko narratibak sortzea	5 orduko banakako lana	21/11/01	21/11/08
IV. Modulua: Produkzioak	15:30-17:30	21/11/09	21/11/09

9. Erreferentzien eta baliabideen bibliografia

UNRWA Euskadi

- elDiario & UNRWA. (2020). *Gaza 2020, ¿Un lugar habitable?* <https://branded.eldiario.es/Gaza2020/>
- United Nations. (2021, abuztua). *Gaza in 2020: A liveable place?* https://www.unrwa.org/userfiles/file/publications/gaza/Gaza%20in%202020.pdf?_cf_chl_jschl_tk__=pmd_HJUsxgR40_CM5Vxw3vJRCFyZJ6rwwjrcWnNyiRZOb9Ds-1631267208-0-gqNtZGzNAhCjcnBszQh9
- UNRWA & elDiario. (2018). *5 millones de razones, 5 millones de refugiados y refugiadas de Palestina.* <https://www.eldiario.es/unrwa>
<https://www.eldiario.es/unrwa>
- UNRWA & Carne Cruda. (2021). *Inshallah. Un Viaje a Palestina – Recorrer Palestina de mano de las personas refugiadas.* Inshallah. <https://inshallah.es/>
- UNRWA. *Narrando lo invisible.* <https://narrandoloinvisible.es/>
- UNRWA. (2017, maiatza). -Ruta M. *Guía para periodistas: Como informar de conflictos y situaciones humanitarias con enfoque de género desde el caso del territorio Palestino ocupado.* <https://unrwa.es/wp-content/uploads/2017/10/RutaZM.pdf>

MOVILTIK

- Counter Narrative Tool Kit, Institute for Strategic Dialogue (ISD), United Kingdom, http://www.strategicdialogue.org/wp-content/uploads/2016/06/Counter-narrative-Handbook_1.pdf
- Dani de Torres, D. (2019, abendua). *10 criterios para construir narrativas alternativas eficaces sobre la diversidad.*

https://www.gitanos.org/upload/75/08/PAPER-COMUNICACIO_769_N-INTERCULTURAL.pdf

Guarinos, V., & Gordillo Álvarez, I. (2010). El microrrelato audiovisual como narrativa digital necesaria. In *IX Conferencia Iberoamericana en Sistemas, Cibernética e Informática (CISCI 2010)*(6 or.). International Institute of Informatics and Systemics.

- The Counter Narrative Handbook, Institute for Strategic Dialogue (ISD), 2016, United Kingdom, http://www.strategicdialogue.org/wp-content/uploads/2016/06/Counter-narrative-Handbook_1.pdf
- The Impact of Counter Narratives, Institute for Strategic Dialogue (ISD), 2016, London, http://www.strategicdialogue.org/wp-content/uploads/2016/08/Impact-of-CounterNarratives_ONLINE_1.pdf